

**GREEN  
BOTTLE**



'Freskagarriak kontsumitzeko ingurumenarekin errespetutsua den alternatiba'

## MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

GREENBOTTLE-ek izango dituen bezero potentzialak Deusto eta EHU unibertsitateetako ikasleak dira.

Hau ikasle guztiei zuzenduta badago ere, arreta handia jartzen diegu hurrengo ezaugarriak dituztenei:



- **Freskagarriak gustuko izatea**, hau da, aurretik freskagarri tradizionalak edo gurea ez den bestelako freskagarriak kontsumitzeko sistemaren erabiltzaileak diren bezeroak izandakoak kontuan hartuko ditugu, hauek, GREENBOTTLE erabiltzera erakarri nahiko ditugu.
- **Ingurumenarekiko konpromisoa** dutenekin beraien bizi-estiloak ingurumenean ahalik eta eragin negatibo txikiena izatea nahi duten ikasleak erakarri nahi ditugu gure eskaintzarekin.
- Badakigu unibertsitateko ikasleek **aurrekontu mugatua** dutela, horregatik, epe luzera begiratuta ikasleei dirua aurrezteko aukera eman nahi diegu. Hasierako inbertsioa handia izan arren, epe luzera freskagarri merkeagoa lortuz amortizatuko dute gastu hori. Sistema honetaz baliatuko gara poltsikoa zaindu behar duten ikasleak erakartzeko.
- **Teknologia berrien erabiltzailea** izatea. Azken finean guk igorritako publizitatea sare sozialen bidez jasoko dute eta botila eskuratzeko prozesu guztia IKT bidez izango da.